



## **VALLE DE TRÁPAGA-TRAPAGARANGO UDALA ETA BATURIK-EN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA "TRAPAGARAN ZAINDU" 2023KO NEGUKO OSTALARITZA-BONU BERRIA GARATZEKO.**

Valle de Trápaga-Trapagaranen, 2023ko ABENDUAREN 4an.

### **BILDURIK**

Alde batetik, Miguel Ángel Gómez Viar, adinez nagusia, Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko Alkate-Presidente gisa, (IFZ P4809300I), haren izenean eta ordezkari jardunez, kargu hori 2023ko ekainaren 17an egindako osoko bilkuraren erabakiaren bidez jaso baitzuen, egintza honetarako behar bezalako ahalduta, indarrean dagoen toki legeriak ematen dizkion eskudantziak baliatuz, 1016/2023 Dekretua betez.

Beste aldetik, Iñaki Sasiain Telletxea, adinez nagusia, Trapagarango merkatari eta ostalarien Elkarteko Presidentea (Baturik), (IFZ G 95394219), kargu hori 2021eko maiatzaren 17an egindako Elkartearen Batzarrean jaso baitzuen.

Elkarri aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko behar den legezko ahalmena eta hitzartuko dutena baino lehen

### **ADIERAZTEN DUTE**

1.- Trapagaranek 11.988 biztanle ditu gaur egun, eta Bizkaiko Nerbioi Ezkerraldeko Meatzaldean dago, bere ekonomiarako estrategikoa den enpresa-jarduera duelarik.

Jarduera horretatik, oro har, merkataritzaren ostalaritza eta zerbitzu-jarduera oso esanguratsua da, horien barruan ostalaritzak % 21 hartzen duelarik.



2.- Merkatari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarte bakarra dago herrian, Baturik izeneko, 2005ean eratu zena. Harrezkero, tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko eta dinamizatzeko jarduerak ugaritu egin ditu, eta Trapagarango gizarte- eta kultura-bizitzan gehiago inplikatu da.

3.- Sinatzaileen ustez, beharrezkoa da elkarrekin jardutea tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen jarduerak suspertzeko eta dinamizatzeko, eta, horretarako, herritarrak eta inguruko udalerrietakoak erakartzea.

Udal Erakundearen eta Baturik elkartearen artean proiektu komun bat dago jarduera sustatzeko eta suspertzeko, ahal den neurrian ekidinez bezeroak galtzea, haiek bere kontsumo-eginkizunak herritik kanpo egiteagatik. Horretarako, urtez urte berritzen diren jarduerak adosten ari dira, eta, horrela, ekintzak hobeto kudeatzen eta koordinatzen direla bermatzen da, bata bestearekin osatuta eta indartuta daudelako.

Horiek horrela, eta dauden akordioak berriro ere betetzeko, udalerriko ostalaritza-jarduera suspertzea asmoa duen hitzarmen hau itundu da, **"Trapagaran Zaindu"-2023ko neguko Ostalaritza Bonu berria** sortuz, honako hizpaketa hauen arabera

## HIZPAKETAK

### A: UDALAREN BETEBEHARRAK:

1.- Udalak **9.375 €** emango dizkio Baturik elkarteari, aipatutako kontsumo-bonu berriaren ezarpena kofinantzatzeko, eta ondorengo atalak bete beharko ditu.

Aurreko kargua ordaintzeko aurrekontu-partida 2023rako luzatutako aurrekontuetan sartutako 430-48002 aurrekontu-partidari goetziko zaio.



Era berean, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrearen Erregelamenduan jasotakoa aplikatuko da, bertan aurreikusten ez den guztian. Osagarri gisa, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

Esleitutako 9.375 € horiek Baturik-ek Nafarroako Rural Kutzaren Trapagarango sukurtsalean duen kontu korrontean sartuko dira, eta ostalaritza-bonu horren ondorioetarako baino ez da erabiliko eta aldebiko hitzarmen hau sinatu eta hurrengo hamabost egunetan kobratuko dira.

2.- Informazioa emango du, bai parte hartzen duten establezimenduen inskripzioari buruz, bai bonuak saltzeko eta erabiltzeko moduari buruz.

3.- Gune bat jarriko du Baturik elkartearen esku, non parte hartzen duten establezimenduek kontsumitutako bonuak eta tiketean edota fakturen kopia utziko dituzten, eta erabili gabeko bonuak edota ezarritako epeetan erabiliko ez direla aurreikusten diren bonuak ere bai, gero Baturik-i entregatzeko. Lehenengo kasuan, berrikusi eta baliozkotu ondoren, establezimenduei ordainduko zaizkie, eta bigarren kasuan, beren bonu guztiak saldu eta bonu gehiago eskatzen dituzten ostalarien artean banatuko dira soberakinak, hori guztia dagokien ataletan xedatutakoaren arabera.

**B: BATURIK-en BETEBEHARRAK:**

1.- Bonuak modu ekitatiboan banatuko ditu parte hartzen duten establezimenduen artean.

2.- C.5 atalean xedatutakoaren arabera bere bonu guztiak saldu eta bonu gehiago eskatzen dituzten ostalarien artean banatuko ditu erabili ez diren edota establezimenduek erabiliko ez direla aurreikusten dituzten bonuak.

3.- Kontsumitutako bonuak eta parte hartzen duten establezimenduek emandako tiketean edota fakturen justifikazioen kopia berrikusi eta baliozkotuko ditu, ondoren C.4 atalean xedatutakoaren arabera ordaintzeko.



4.- Kanpaina amaitu ondoren, eta betiere 2024ko martxoaren 15a baino lehen, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu Udaleko Erregistro Orokorrean:

- Egindako jardueraren justifikazio-memoria, gastatutako zenbatekoa eta bereziki adierazita gastatu den diru-kopurua eta 9.375 €-tan finkatu den dirulaguntza honen kostua erabat estali den.
- Bonu inprimatuen zatien originalak, guztiak kontsumituak, eta fakturen tiketen edo frogagiriaren kopiak.

Diruz lagundutako zenbateko osoa erabili ez bada, sartutakoaren eta kontsumitutakoaren arteko aldea Udal Kutxetara itzuli beharko da, 2024ko martxoaren 15a baino lehen.

**C: ERABILTZEKO BALDINTZAK:**

1.- Bonu bakoitzaren kontsumo-balioa 5 eurokoa izango da, baina 2,5 eurotan erosiko da. Eroste kostu hori bezeroak ordainduko du establezimenduan erabiltzen duen unean bertan.

Bonuak ez dira establezimendutik aterako eta erosten diren unean bertan kontsumituko dira.

Ostalaritza bonua ez da zatikigarria, eta kontsumizio bakoitzeko gehienez bi bonu metatu ahal izango dira eta tiket edo faktura bakarrean islatuko da. Kontsumizioaren zerbatekoa bonoaren zenbatekoa baino tikiagoa bada, ez da kanbioa eskudirutan itzuliko eta establezimenduak Udalaren diru-laguntza jasotzean, tiket edo fakturan islaturiko kopurua baino ez du jasoko. (Adibidez: Tiket edo fakturan islaturiko kontsumizioaren zenbatekoa 4,5 eurokoa bada, establezimenduak 2 € jasoko ditu udalaren aldetik eta ez 2,5 €.)

Establezimenduek ezin izango dute erreserbatu edo bahitu bonurik euren bezeroentzat.

2.- Uste da kontsumitzaileak 2023ko urtarrilaren 18tik otsailaren 7ra eskuratu ditzakeela bonuak. Hala ere aldaketak egon daitezke hasieran eta amaieran, bi alderdi kontratatzaileen artean adostuko delarik kontu hori.



Erosi ahal izateko adinez nagusia izan beharko da. Pertsona bakoitzak ezin du bi bonu baino gehiago erosi kontsumizio eta ostalaritza establezimendu bakoitzeko.

3.- Kanpainari atxiki daiteke ostalaritza establezimendu baten titularra den edozein pertsona fisiko edo juridiko, baldintza hauek betetzen baditu:

- Txikikako saltokia izatea, 10 enplegatu edo gutxiagokoa (autonomoak eta inoren konturako langileak barne).
- Gutxienez, saltoki bat edukitzea Valle de Trápaga-Trapagaranen.
- Altan emanda egotea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafe hauetako batean:

1.671		Jatetxeetako zerbitzuak
1.672		Kafetegietako zerbitzuak
1.673		Kafe eta tabernetako zerbitzuak, janariarekin edo janaririk gabe
1.674		Jatetxe, kafetegi eta kafe-tabernako zerbitzu bereziak.

Bi alderdi kontratatzaileek izango dute eskubidea JEZaren zehaztasun hau aldatzeko.

Atxikitako establezimendu bakoitzak bereizgarri bat edukiko du ondo ikusteko leku batean.

Kanpainen parte hartu dezakete Baturikeko elkarkide diren establezimenduak eta ez direnak ere bai.

Gorago aipaturiko eskakizunak betetzen dituzten establezimenduek, kanpainen parte hartu nahi badute, Udalaren eta Baturiken webguneetan eskuragarri dagoen on-line inprimakia bete beharko dute abenduaren 26ko 9:00etatik abenduaren 29ko 13:00etara arte. Hala ere aldaketak egon daitezke hasieran eta amaieran, bi alderdi kontratatzaileen artean adostuko delarik kontu hori.

Aipatutako datetan atxeki ez den establezimendu bati ere ez zaio ordainduko bonu-zatikirik.



Antolatzaileek eskubidea izango dute atxikipen-eskabidea hobeki baloratu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duten beste edozein agiri eskatzeko.

4.- Establezimendu parte-hartzaileek Udalak diruz lagundutako zatia kobratzeko modurari dagokionean

Establezimenduak tiketa edo faktura josi beharko dio bonuari.

Tiket edo fakturaren kopian dagokion bonuaren deskontua agertu beharko da

Tiketak edo fakturak behar bezala beteta egon beharko dira eta, gutxienez, establezimenduaren izena, erosketaren data, IFK/IFZ eta zenbatekoa agertu beharko dira.

Agiri horiek guztiak balidatzeko eramango dira Valle de Trápaga-Trapagarango Enplegu eta Herriaren Garapenerako Agentziara, urtarrilaren 29 eta 30ean eta otsailaren 8 eta 9an. Ondoren, BATURIKera bidaliko dira banku-transferentziaren bidez ordain ditzan saltokien kontu-zenbakietan. Ordainketa hau, beranduenez, 15 eguneko epean egingo da, bonuak eta tiketak edo fakturak jasotzeko aldi bakoitzaren azken egunetik hasita.

5.- Erabili ez diren bonuen itzulketa:

Erabili ez diren edota zio desberdinengatik erabiliko ez direla aurreikusten diren bonuak itzultzeko epe bat zabalduko da 2024ko urtarrilaren 29tik 30era. Alderdi kontratatzaileek aldatu egin ditzakete data horiek horretarako arrazoirik balego, eta kontu hori bien artean adostu beharko dute.

Bonu horiek erabili gabe gera ez daitezen, itzulketa-data amaitu ondoren, eta kontuan hartuta itzuli den bonu-kopurua, antolatzaileek soberakinak banatuko dituzte bere bonu guztiak saldu eta gehiago eskatzen duten establezimenduen artean. Banaketa hori eskaeraren hurrenkeran egingo da eta bidezko moduan.



Erabili ez diren bonuak garaiz itzuli ez dituzten establezimenduak baliteke hurrengo deialdietan baztertuak izatea.

6.- Programa sustatu eta zabaltzeko Baturik erakundetik ateratzen den publizitate orok, gutxienez, bere logotipoa eta herriko udalarena jaso beharko ditu.

7.- Jarraipen-organo bat eratzen da akordio honetan adierazitako eta programatutako ekintzen gainean sortzen den edozein arazo gainbegiratzeko eta ebazteko. Organo horrek ekintza horien betetze-maila ebaluatuko du, eta neurri zuzentzaile egokiak gomendatuko ditu.

Organo hori modu paritarioan osatuko da, eta gutxienez toki-erakunde horretako ordezkari batek eta Baturik elkarteko beste batek osatuko dute.

Organo hori gutxienez behin bilduko da kanpaina hasi aurretik, beste behin kanpaina zehar eta hirugarren batean emaitzak ebaluatzeko eta ekitaldia ixteko.

Eta agiri honetan jasotakoarekin eta hitzartutakoarekin ados daudela adierazteko, alderdiek bi aletan sinatzen dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean, eta ale bana geratzen da bakoitzaren esku.

Udalaren aldetik  
Alkate-Presidenteak

Elkartearen aldetik  
Presidenteak

Izptua.: Miguel Ángel Gómez Viar

Izptua.: Iñaki Sasiain Telletxea